



## **GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIAREKIN SINATU BEHARREKO “HONDARRIBIKO ELKANO OSTATUAREN EUSKAL GIROTZE BARNETEGI” HITZARMEN PROIEKTUARI BURUZKO LEGEZKOTASUN-TXOSTENA.**

---

**2017/75 LGAKZ - LT**

### **I – AURREKARIAK ETA LEGEZKOTASUN TXOSTEN HONEN EGOKITASUNA.**

Hezkuntza Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak, 2017ko maiatzaren 3an, izenburuan adierazitako ekimenaren gaineko LEGEZKOTASUN TXOSTENA egiteko eskaria egin dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honi, sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmenari buruz. Eskari horri honako dokumentazioa eransten dio:

- Hitzarmenaren testua.
- Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak emandako Memoria.
- Ekimena onartzeko Gobernu Kontseiluaren Akordio proposamena.

Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak, azaroaren 26koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu. Horren 6.1 h) artikuluan oinarrituz ematen dugu honako txosten hau. Bai eta, horrekin batera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 12.1.a) eta 14.1.a) artikuluek aurreikusitakoari helduz.

Era berean adierazi behar dugu Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikulua edukiarekin bat, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio egin beharreko txosten juridikoa egitea Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektuak, erregelamenduz zehaztutako kasuetan. Garapen hori 2017ko maiatzaren 4an indarrean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuan eman zen. Honen 13. Artikuluak honako txosten honen



beharrezkotasuna ezartzen du, bai eta, haren eskariarekin batera, eskatzaileak ekimenaren espediente osoa bidali behar duela. Eskakizun hau jasota zegoen aurretik ere, 1995eko ekainaren 13ko eta 1996ko urtarrilaren 9ko Gobernu Kontseiluaren Akordioetan; hau da, urrenez-urren, nahitaezko legezkotasun txostena behar zuten xedapen eta ekimenak zehazten zituena, batetik, eta Gobernu-Kontseiluak baimendu behar zituen hitzarmenak zehaztu eta haien izapidetzea arautzen zuena, bestetik.

## **II - ERABILITAKO ESKUMENA ETA EKIMENAREN LEGEZKOTASUNA.**

Euskadiko Autonomia-Erkidegoaren Administrazioaren eta beste Administrazio Publiko baten (kasu honetan Gipuzkoako Foru-Aldundiaren) artean adostutako hitzarmen proposamena den neurrian, Gobernu Kontseiluari dagokio berau harpidetzeko baimena ematea. Era berean, Legebiltzarrarekiko harremanetarako organoaren bitartez Legebiltzarrari komunikatu behar zaio ere bai, Lurralde Historiko batekiko hitzarmena denez gero.

Horrela dator beren beregi aurreikusita lehen aipatutako Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55, 57 eta 59. Artikuluetan. Eta, aurretik, Gobernu-Kontseiluak baimendu behar zituen hitzarmenak zehaztu eta haien izapidetzea arautzen zuen 1996ko urtarrilaren 9ko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren 3., 6. eta 10. Arauetan.

Gure txostenaren objektu den hitzarmen egitasmoak Administrazio bien arteko elkarlana du helburu, hau da, batetik Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Sailaren bidez, eta bestetik Gipuzkoako Foru Aldundia, haren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Sailaren bidez. Elkarlan horren bitartez Administrazio Orokorrari atxikitako "EUSKAL GIROTZE BARNETEGI" delakoa Hondarribian ezarriko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzapekoa den eta gaur egun "Elkano Ostatua"-ren egoitza den eraikinean.

Aipatutako eduki hauek, oinarritzkoak izaki ekimenaren konfiguraziorako eta ulermenerako, egia esan, ez dira espresuki hitzarmenaren hitzez-hitzez-kotasunean aipatzen, ez bere azalpenezko partean, ez bere xedapenezko partean, eta espedientearen bildutako informaziotik ondorioztatu behar dira.

Izatez, derrigorrez deitu behar baitugu atentziora gure txostena egiteko aurkeztu zaigun testuaren garapen eskasari buruz. Haren objektu den elkarlana modu egokian zehaztu ahal izateko, esan berri ditugun zirkunstantzia guztiak aipatu behar lirateke; hau da, hitzarmenak eragingo dituen eraikin eta zerbitzuen titulartasuna zehaztu eta, gutxienez, delako “Euskal Girozte Barnetegi” horren definizioa, helburu eta zertarakoa azaldu behar dira. Azken honetarako ere joan behar baita hitzarmenaren testutik haraindi. Eta hori ez baita onargarri hitzarmenak gutxienera zaizkion eskakizunak bete nahi baditu, haien artean, nabarmen, bere objektuaren zehaztapen konkretua [Sektore Publikoaren Eraentza Juridikoari buruzko, urriaren 1eko, 40/2015 Legearen 49 artikulua c) letra].

Ez du hitzarmenaren testuak betetzen, ez eta ere, bere iraupena edo indarraldi epea zehazteko eginbeharrarekin. Ez baita nahikoa izaera mugagabea adieraztearekin (zazpigarren xedapenaren lehen paragrafoa), Sektore Publikoaren Eraentza Juridikoari buruzko, urriaren 1eko, 40/2015 Legearen 49 artikulua h) letra ezartzen dituen arauak kontutan hartu behar baititu.

Iraupena zalantzakoa da, ez bakarrik datozen ikasturtetara begira bere luzapena inork kontraktorik ez adieraztera baldintzaturik geratzen delako, ezpada aurreneko 2017 ikasturte honetako indarraldia bera ere zalantzan geratzen delako, Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan kreditu egoki eta nahikoa izatearen menpe jartzen baita (bigarren paragrafoa), Administrazio honen egiteko nagusia dirua ematea izaki (seigarren xedapena).

Eta, izatez, Administrazio honek 2017 ikasturterako hartzen duen eginbehar ekonomikoari gagozkiola, ez da espresuki zehazten dagokion zenbatekoa, egoki litzatekeen bezala, eta posible litzatekeen bezala, urte sasoi eta aurrekontuen exekutatzeko maila nahikoa aurreratua daudela kontutan izaki.

Nolabaiteko nahasketa bat egiaztatzen da ere, barnegi autonomikoak egindako Foru Aterpetxe eta egoitzen erabilpen kostuak finantzatzeko, Hezkuntza Sailaren diruzko ekarpenaren jatorria zehaztu nahi denean (laugarren, bosgarren eta seigarren xedapenetan). Horrela, (aipatutako hitzarmenaren seigarren xedapenean) aipatzen da ekarpen hori modu bitan emango dela, batetik, euren ikastetxearen bidez ikasleek ordaindutako tarifen sarrekin eta, bestetik, sailaren zuzenean jarritako diru-kopuruarekin, eta Hezkuntza Sailari dagokiola ikasturtero

ikastetxeari dagokion zenbatekoa finkatzea. Baina bosgarren xedapenean esaten da tarifa Foru Aldundiak Aterpetxe eta egoitzen erabilpenagatik urterako onartutako gazteentzako prezio publiko arrunta ordainduko dela eta ordaindu beharreko hori urtero eguneratuko duela Aldundiak berak. Badirudi Aldundiak zehaztutako zenbateko hori ordaindu beharko duela Eusko Jaurlaritzak, aipatutako bide bietatik, hau da tarifen sarrerekin eta berak jarritako dirukopuruarekin.

Ez dira modu egokian ezberdintzen, gure aburuz, aipatutako kontzeptu biak, baldin eta hitzarmenaren objektua bada “Euskal Girotze Barne-tegi”-a bertan jarri eta horrek eragindako gastuen finantzamendua.

Horiek kenduta, ez daukagu legezketasun zorrotzeko trabarik aurkitzen, berez, hitzarmenak egikaritu nahi duen administrazioen arteko elkarlanari gagozkiola, bereziki, sinatzaileek darabiltzaten eskumenei (kasu honetan, hezkuntza eta hizkuntz politikari buruzkoak) edo erabilitako tresna juridikoari (hitzarmenaren izaerari) aditzen badiegu.

Azkenik, gehitu behar dugu aipatu den bezala, testuan konpromiso ekonomiko eta materialak zehatzak (nahi eta kuantifikatu gabekoak) agertzen diren neurrian, nahitaezkoa gertatzen dela barneko kontrol ekonomiko-fiskaleko txostena. Konpromiso ekonomiko horiek, funtsean, honakoak dira: 1) Gipuzkoako Foru Aldundiak bere titulartasunpeko Hondarribiko eraikin horretan bere instalazio eta dependentzien lagapena egitea; 2) Eusko Jaurlaritzak eraikin horretan bere zerbitzu bat jartzeagatik kostuak ordaintzea.

Hau da nire txostena, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hamalauan Vitoria-Gasteizen ematen dudana, eta beste zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dudana.